

# Danobat "Tekniko-Industrial Hiztegia" z

O. Hiztegitxo interesgarri hau ikusi berria dut. Oso ona, oro har, zalantzarik gabe; horregatio, gauza batzuetan bat ez natorrelako kritikaño bat egin gura nioke, neure aukerak, bidenabar, bertan ezarriz.

Horretarako Euskaltzaindiaren idaztarauak erabiliko ditut, erabiltzen saiatuko naiz behintzat. Egia esan, erabil daitezkeen neurrian eta heinean, nahiko kriptikoak eta ganorabakok baitira, edo eta Gabriel Aresti zenaren hitzez erratearren: «ez baita kristau amaren semerik horik uler ahal ditzakeenik».

Hona, bada.

1. Marratxoa noiz jarri behar den esatean, h. d., III kapituluko 6. punduan, e azpipunduan hau agertzen da:

«**Hitz elkarteak.** Ez ordea beti. Hitz elkarteak beti sortzen ari da euskeraz. Beti horrelakoetan marra jarri beharra, aspergarri eta are itsusi ere litzake. Aipa ditzagun kasurik beharrezkoenak. Hoietaz landara, azer ez jartzea hobe.

— (Bigarren pundutxora igaroaz) Marratxoa jarri gabe, hitz elkar-tea ote den garbi ageri ez denean. Abidez: **Kandela-argia, andre-sendagile, haur-saltzaille.** Beti, ordea, horrelakoetan jarri beharrik ez da: hitz labur-rak direnean edo lehendiziko hitzaren bokala galdu ez, baina aldatu egiten denean, hobe dena loturik idaztea. Adibidez: «**Ahazabal, buruhandi, sodurluze.**» («Euskera», **Idaztarauak**, separata, XVI, 1971, Bilbo, 13. hor.)

Eta geroago, lan bereko 17. horrialdean:

«**Hitz elkarteak.** Marratxoa jarri behar denekoak alde batera utziz (Ikus Lehen Erabakia), honako beste kasuok gogoratu behar dira:

a) Jatorriz hitz elkartua izanarren, osagarriak elkargana bildu baldin

badira eta hitz sinplea bezala erabiltzen bada, orduan dena loturik jar bedi. Adibidez: **Sagardo, Galbide, Amorra**.

b) Hitz elkartuen osagarriak osorik eta garbi ageri direnean, bereiz jartzea hobe. Adibidez: **Hitz egin, Elkar hizketa** (azken hau, kasu batez, orain gehiago idazten da elkaturik).

c) Aurreko hitzak bilketan letraren bat galdu baldin badu, eta aurreko zein atzeko hitza laburra baldin bada, biak baturik idaztea hobe; bestela, berriz, bereiz. Luzea bezala jotzen da bi silabatik gora duen hitza. Adibidez: **Abendats, Arnasots, Elizgizon, Gizabide, Gizalan, Gizatalde, Itsaserts**. Baina: «**Anai maitasuna, Arnas gaitzaldia, Ekonomi arazoa, Eliz agintariak, Filosofi saila, Giza eskubideak, Kultur gaiak** (ez dut hau ulertzen, zeren berba biak **laburrak** —goion emandako erregelaren arauera— baitira), **Euskal kantari, Literatur irakaskintza**. Baina bilketa egitean, bi hots, euskeraz elkartzen ez diren hoietakoak, elkar joko balute, hori gerta ez dadin, kasu horretan, hitzok bereiz idatziko dira. Adibidez: **Eliz zerga, Itsas xori**.»

### 3. Hona hemen zerrenda:

- Aceitera: Olio ontzi —> **OLIONTZI** (biak laburrak baitira).
- Acero al carbono: karbono altzairu —> **KARBONO-ALTZAIRU** (osterantzean, nik uste, ez da jakiten hitz beregain ala elkarterik diren, horretaz ez duenak larregi ulertzen batez ere).
- Acero de herramienta: erreminta altzairu —> **ERREMINTA-ALTZAIRU** (gauza beragatik).
- Acero de nitruración: nitrurazio altzairu —> **NITRURAZIO-ALTZAIRU** (gauza beragatik).
- Almacén de expediciones: bidalketa gordailu —> **BIDALKETA-GORDAILU** (gauza beragatik).
- Almacén de materias primas: lehen gaien gordailu —> **LEHEN-GAIEN GORDAILU** (gero, **lehengai** berban jarriko dudan legez, biak **laburrak** diralako).
- Almacén de piezas comerciales: merkatal piezen gordailu —> **MFRKATALPIEZEN GORDAILU** (**merkatalpieza**, bestela, oso ondo ulertzen ez delako).
- Austenita residual: hondar austenita —> **HONDAR-AUSTENITA** (lehengo arrazoin bera).
- Angulo de la herramienta (o del filo): aho angelu —> **AHANGELU** (hitza lar luze ez izateaz gain, aurrekoak moldaduran azken bokala aldatzen duelako).
- Barrera grande: Taratulu —> **DARATULU** (Euskaraz latinetikoko berbetan oklusiboak haserako egongunean ozendu egiten direlako, hots, **B - D - G** bihurtzen direlako, eta erdiko, bokalarteko egongunean, oster, gortu, hala nola **errealitate**-an eta beste hamaika kasutan. Bestalde **DARATULU** erabiltzen da Euskal Herrian).

— Barrita de piedra: esku harri —> ESKUHARRI (biak direlako labur).

— Carro: orga —> ORGA, GURDI (hau **ere**, ene aburuz).

— Bobina (eléctrica): elektra haril —> HARIL ELEKTRIKO (ulerpenaren amorez, askoaz ulerkorra delako).

— Central eléctrica: elektra zentral —> ZENTRAL ELEKTRIKO (lehengo arrazoin bera; gainera badago ZENTRAL NUKLUEARRA. Beste ahalbide ulerkor xamar dagoena hau da: ELEKTRA-HARIL eta ELEKTRA-ZENTRAL).

— Clase (tipo): mota, klase —> MOTA (hau bakarrik jarriko nuke, nire eritziz **KLASE** hitza zentzun soziologikorako erabiltzen baita oso zehazki. h. d., **KLASE SOZIAL**).

— Corriente eléctrica: elektra korronte —> KORRONTE ELEKTRIKO (edo bestela ELEKTRA-KORRONTE lehengo gauza beragatik).

(—Hitz laburrak elkartzeko zeuok jarriko etsenplu bi ezartzearen, hor dituzue: BURDINZIZEL eta GURIZABAL.)

— Cresta de la rosca o filete: hari gailur —> HARIGAILUR (aurreko arrazoin bera).

— Departamento comercial: merkatalgo sail —> MERKATALSAIL (merkatalgo hitzaren moldadurarako forma **merkatal** delako; horrez gain berba **labur** bat egiten dutenez).

— Departamento de proyectos: diseinu sail —> DESEINUSAIL (arrazoin bera). Bide batez, eta **liburudenda**, **janaridenda** eta horrelakotan egin den moduan, nik neuk **sail** agertzen den guztietan lotu egingen nuke.

—Destalonado (en macho de roscar): azpijan neurri —> AZPIJAN NEURRI (ulertzen ez delako ostera).

— Diente de engranaje: engranaje hortz —> ENGRANAIA-HORTZ (zuen errakuntzatxo bat delakoan nago, geroago gaztelaniazko **engranaje**, behar den legez, **engranaia** itzultzen duzuelako).

— Dirección: zuzenbide —> HELBIDE (zuzenbide, Etxaparengan janik ikus daiteke «Derecho público» a da. Eskubide, berriz, «derecho privado»a, hots, nork berea daukana).

— Eje roscado de tornillo de banco: tornu zil —> TORNUZIL (hitz laburra delako).

— Elemento básico: oinarrizko elementu —> OINHARRIZKO ELEMENTU (arrazoina agerian dago; oker ez banago, Arantzazuko txostenean oklusibo hasperendunetatik aparte - ph, th, kh - kontsonanteen ondoko hatxeak kentzea proposatu zuenean Koldo Mitxelenak beste gauza batez hitz egiten bide zuen, h. d., iparraldeko euskaran gertatu den bila-kaera batez, zaharra nahiz berria; hegoaldeko euskalkietan /L/ edo /LL/ agertzen den tokian, iparraldekoeta /LH/ agertzen ohi da: ILUN /ILLUN/ ILHUN. Gauza bera /R/arekin da gertatzen: ERO/ERHO. Eta berdin /N/arekin: JANARI/JANHARI. Beraz, ene aburuz, ez zuen moldaduran sortzen diren hatxez berba egiten. Horregatik uste dut OIHARRI hobe

dagoela. Honen kontra SORTHETXE bezalako argudiorik aterako balitza, zera erantzun beharko litzateke, hor /TH/ bat sortu dela, hcts euskara batutik kendu den hots bat, OINHARRI hitzaren kasuan gertatzen ez dena silaba ezberdinak direlako.

— Energía eléctrica: elektra energia —> ENERGIA ELEKTRIKO (edo ELEKTRA-ENERGIA lehen esan dudana legez).

— Esfuerzo: esfortzu —> eta AHALEGIN.

— Espacio: lekune —> eta ESPAZIO (gauza ezberdina delako).

— Excesivo: gehiegi - eta LARREGI eta SOBERA.

— Falsa cuchilla: sasi hortz —> SASIHORTZ (sasi sekula ez delako, aspalditxo honetan hitz beregain bat izan, **aurrizki** bat baizik).

— Falso filo: sasi aho —> SASIAHO (aurreko arrazoin beragatik).

— Herramienta de corte: ebaketa erreminta —> EBANERREMINTA (**eban** hori **ebaki** aditzaren moldadurarako forma delako).

— Herrumbre: herdoi —> ta UGER **ere**.

— Inoxidable: herdoigaitz —> eta UGERKAITZ.

— Llave: giltz —> GILTZE edo bestela GILTZA (honela delako berba; nik neuk lehenengoa aukeratuko nuke **batzarre**, **bizitze** eta horrelako kasuetan bezala).

— Longitud: luzera —> LUZEERA (atzizkiak horrela eskatzeaz gain hau izan da orain arte erabili den hitza).

— Longitud de la garganta: lepo luzera —> LEPO LUZEERA.

— Luz fluorescente: fluor argi —> FLUORARGI (hitz **laburra** delako).

— Macho: har —> AR (har, okertzen ez banaiz sugetxo txiki eta bigunei izendatzeko erabiltzen da).

— Materia prima: lehen gai —> LEHENGAI (hitz **laburra** delako).

— Material eléctrico: elektra langai —> LANGAI ELEKTRIKO (edo ELEKTRA-LANGAI lehen esan dudana bezala).

— Mecanización: mekanizaketa —> MEKANIKAKETA (latinetikoa) ICARE atzizkia euskaraz hartzeko beharrik ikusten ez dudalako, gure hizkuntzan edozein berbatik dela aditz bat sortzeko dauzkagun ahalbideak kontutan harturik. Esate baterako: **industrialdu**, **politikatu**, **socialdu** e.a.)

— Mecanizar (tornear): mekanizatu —> MEKANIKATU (goi. o arrazoin beragatik).

— Motor de explosión: eztanda motore —> EZTANDA-MOTORE (ondo ulertzen ez baita oster). (Agian are hobea oraindik: EZTANDA-MOTORE).

— Motor eléctrico: elektra motore —> MOTORE ELEKTRIKO (edo ELEKTRAMOTORE. Zuek jarririko kasu bat aipa daiteke oraigo hau zuzenesteko: AZALEGOERA).

— Muela de esmeril: esmeril harri —> Ez ahal da gauza bera ZORROZTARRI, esaten den bezala?

— Nomenclátor técnico: teknik izendegia —> TEKNIKIZENDEGIA.

- Normalizado: normalizatu, arautu —> ARAUTU eta NORMALDU (goian aipatu arrazoinarengatik).
- Papel de lija: liz paper —> LIZPAPER (hitz laburra da).
- Paso: hari neurri —> HARINEURRI (gauza beragatik).
- Portabrocas: barauts etxe —> BARAUTSETXE (bestela hitz bat bezala, **etxe** dela eta, ez bailitzateke joko).
- Portaherramientas: erreminta etxe —> ERREMINTETXE.
- Porta machos: ardatz etxe —> ARDATZETXE.
- Porta sierras: zerra etxe —> ZERRATETXE («sierra» esateko -toki eta guttiz - badugu, hain zuzen, euskaraz ZERRATOKI).
- Poro de la pieza fundida: haize zulo —> HAIZAZULO (ez ote dugu euskaraz IPURTZULO edo eta SUDURZULORik?)
- Punto: puntu —> PUNDU (Euskaraz jatorrago da /N/ eta /L/ atzean/P-T-K/ /B-D-G/ bihurtzea gor irautea baino).
- Radián: radian - ERRADIAN (jatorrago delako horrela).
- Radio: radio - ERRADIO (gauza bera).
- Recristalización: birkristalizatze —> BIRKRISTALDATZE (lehen aitatu izan dudana arrazoinarengatik).
- Recristalizar: berkristalizatu —> BERKRISTALDU.
- Rectángulo: lauki zuzen - LAUKIZUZEN (hitz laburra da).
- Rodamiento: rodamendu —> ARRODAMENDU edo ERROTAMENDU (bigarrena hautatuko nuke, edozein kasutan ere euskal izen bat gainean egindako berba bat, zeren ARRODA eta ERROTA euskara bizian erabiltzen baitira, Bizkaian behinik).
- Roña: herdoi —> eta UGER ere.
- Sección de compras: EROSKETASAIL ez erosketa sail (lehen aipatu dut kasua).
- Sección de ajuste: doiketa sail —> DOIKETA-SAIL edo DOIKETASAIL.
- Sección de fresadoras: fresa sail —> FRESASAIL (hitz laburra delako, lehengo argudioez gain).
- Sección de rectificadoras: artezteko makina sail —> ARTEZTEKO MAKINEN SAIL (honela ulerkorrago delako).
- Sierra mecánica: zerra makina —> ZERRAMAKINA, edo ZERRA MEKANIKO.
- **Gehi** eta **ken**: **hiru(ri) gehi lau** eta **zazpi(ri) ken bost** irakurera-ziko bada, ederto, bestela hobe da ene ustez PLUS eta MINUS eta zatiketari INTER esatea. Arrazoina argi dago, hizkuntza bizia onhartzen bada errespetatu behar da ahal den neurrian. Bestalde ez dut uste esaterakoan —RI hori gehitzearen ezer latzik gertatzen datekeenik zenbaitek nahi lukeen bezala. Gonbarazioetan ere **5 handiago 4**, inork ez dio euskal haur

bati, gero bere kontura eta normal den bezala baino pentsatzeko eskubi-dea kenduko).

— Superficie de desprendimiento: ebaketa azal —> EBANAZAL.

— Superficie de despulla: azpijan azal —> AZPIJAN-AZAL (ulertzen ez delako oso ondo).

— Superficie mecanizada: azal mekanizatu —> AZAL MEKANI-

KATU.

— Técnico (izena): tekniku —> TEKNIKALARI.

— Temperatura de corte: ebaketa tenperatura —> EBAN-TENPERATURA.

— Vapor de agua: ur lurrin —> URLURRIN (hitz laburra da).

— Velocidad de corte: ebaketa abiadura —> EBANABIADURA.

**Andolin Eguzkitza**